

Marmitx eta Armitxoak

Aspaldi-aspaldi, orain zapaltzen ditugun errepide eta espaloiak zelaiak zirenean, Marmitx zomorroa jaio zen, bere bi antena luze eta hanka ugariekin jaio ere. Haurra zela, baita gerora ere, egunak joan egunak etorri, han-hemen ibiltzen zen lagunekin jolas eta solas, aske. Alabaina, zoritxarreko egun batean, Marmitx eta bere lagun armitxoak zuhaitzez zuhaitz saltoka ari zirela, izaki erraldoi batzuk agertu ziren, bi hanken gainean ibiltzen ziren izaki handi eta oihulari batzuk: gizakiak ziren! Marmitx eta armitxoak ahozabalik geratu ziren, zur eta lur, zuhaitzen hostoen atzean ezkutatuta, isil-isilik, begiak erne eta gorputzak dar-dar. Zertan ari ote ziren gizakiak han? Halako batean, baina, alde egin zuten. «Eskerrak joan direla!», esan zuten armitxoek aldi berean, pozik.

Handik egun batzuetara, ordea, gizakiak berriro azaldu ziren, eta, sekulako makinatzarrak gidatuz, zomorroen bizilekua suntsitzen hasi ziren: betiko zelai, zuhaitz, lore eta harri-koxkorrak desagerrarazi zituzten, berentzako etxe, errepide eta dendak jarri nahi zituztelako. Inguruko animalia eta zomorroek, ikararen ikaraz, urrutira egin zuten ihes, baina Marmitx eta armitxoak lurpean ezkutatu ziren, ez zutelako beren tokia utzi nahi.

Esan bezala, aspaldi gertatu zen hori, baina, lur azpian bizi zen landare berezi-berezi baten lurrinari esker, zomorroak lozorroan egon dira gaurdaino, gure auzoko kaleen azpian lo, harik eta gaur goizean tranbiaren obren zaratek esnatu dituzten arte. Hala, Marmitxek begiak ireki ditu, eta, obren ondoriozko lur-mugimendu bat aprobetxatuta, gora egin du, tirriki-tarraka gora, eta kalera atera da. Ingurura begiratu, eta ez zaio batere gustatu ikusi duena: autoak po-po! zarataka, kaleak zulatuta, berdeguneak zikinkeriaz josita, kea nonahi, jendea oihuka, batzuk borrokan... «Zer arrai da hau!», pentsatu du, eta haserrea sentitzen hasi da, haserre gero eta handiagoa, sabeletik gora. «Nork eragin du hau guzti hau?», esan du, ahapeka, begiak malkoz beteta zituela.

Orduan, erantzunak nahi zituenez, Salburutik bueltatxo bat ematea erabaki du, eta bi begiekin ikusi ahal izan du mundu gris honen sortzaileak helduak direla: umeeak, animaliek eta zuhaitzek bezalaxe, ez daukate inolako errurik! Bada, nahikoa ikusi duela pentsatu duenean, triste eta haserre, zulora itzultzea erabaki du, baina ez han lo jarraitzeko, ez, armitxoen bila joateko baizik! Marmitxek argi dauka: bada zomorroak kalera irten eta beren tokia aldarrikatzeko ordua, haserrea adierazteko ordua, helduei ohiturak aldatzea eskatzeko ordua. Haserre daude, eta adierazi egingo digute.

Batzuek diotenez, zurrumurrua baitabil kalean, Marmitx eta armitxoak gurekin ibiliko dira inauterietako kalejiran, eta hurrek bat egin ahalko dute haiekin, helduei gauzak alda ditzaten eskatzeko. Zomorroen haserrea baretzea lortuko dugu?

Hace mucho tiempo, cuando las carreteras y aceras que ahora pisamos eran prados, nació el insecto Marmitx, con sus dos largas antenas y sus múltiples patas. Cuando era txiki, incluso después, los días pasaban, iba y venía jugando con sus amigas y amigos y charlaba libremente. Sin embargo, un día desafortunado, mientras Marmitx y sus amigas Armitxoak saltaban de árbol en árbol, aparecieron unos seres gigantescos, unos seres grandes y vociferantes que caminaban sobre dos patas: ¡eran personas! Marmitx y los Armitxoak quedaron boquiabiertas, atónitos, ocultas tras las hojas de los árboles, silenciosas, con los ojos atentos y el cuerpo tembloroso. ¿Qué estaban haciendo allí los humanos? En un momento dado, sin embargo, se marcharon. “ ¡Menos mal que se han ido! ” dijeron los Armitxoak al mismo tiempo, satisfechos.

Al cabo de unos días, sin embargo, aquellas personas volvieron a aparecer y, guiando máquinas con enormes garras, empezaron a destruir la morada de los insectos: hicieron desaparecer los campos, árboles, flores y pedregales de siempre, porque querían poner casas, carreteras y tiendas. Los animales e insectos que los rodeaban, asustados, huyeron lejos; pero Marmitx y los Armitxoak se escondieron en el subsuelo, porque no querían abandonar su sitio. Como se ha dicho, esto ocurrió hace tiempo, pero, gracias al aroma de una planta singularísima que vivía bajo tierra, los insectos han permanecido dormidas hasta hoy, dormidos bajo las calles de nuestro barrio, hasta que esta mañana han sido despertadas por los ruidos de las obras del tranvía. Así, Marmitx ha abierto los ojos y, aprovechando un movimiento de tierras fruto de las obras, ha ido subiendo, subiendo y subiendo, y ha salido a la calle. Mira a su alrededor y no le gusta nada lo que ha visto: coches ¡po-po! ruidosos, calles agujereadas, zonas verdes sembradas de suciedad, humo por doquier, gente gritando, algunos peleándose

“ ¡Qué carajo es esto! ”, piensa, y empieza a sentir ira, ira creciente, desde el estómago hacia arriba “ ¿Quién ha provocado todo esto? ” dice en voz baja, con los ojos llenos de lágrimas.

Entonces, como quería respuestas, ha decidido dar una vuelta por Salburua y ver con sus ojos que los creadores de este mundo gris son las personas adultas: ¡los y las niñas, los animales y los árboles, no tienen ninguna culpa ¡Pues bien, cuando ha pensado que ha visto bastante, triste y enojada, ha decidido volver al hoyo; ¡pero no para seguir durmiendo allí, no, sino para ir en busca de Armitxoak! Marmitx lo tiene claro: “Es hora de que los insectos salgan a la calle y reivindiquen su lugar, de expresar su indignación, de pedir a los y las adultas un cambio de hábitos. Están enfadados, y nos lo harán saber.

En estos días se ha extendido un rumor por la calle: Marmitx y los Armitxoak nos acompañarán en la kalejira de carnaval y los niños y niñas podrán unirse a ellas para pedir a las personas mayores que cambien las cosas. ¿Conseguiremos calmar la ira de los insectos?

